

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN
AKTA**

**LEHENDAKARITZA, 2019KO ABENDUAREN
10A**

BERTARATUAK:

Iñigo Urkullu jauna
LEHENDAKARIA

Arantxa Tapia andrea
EKONOMIAREN GARAPENeko ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

Pedro Azpiaz jauna
OGASUN ETA EKONOMIA SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea
HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Nekane Murga andrea
OSASUNEKO SAILBURUA

Unai Rementeria jauna
BIZKAIKO DIPUTATU NAGUSIA

Markel Olano jauna
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Ramiro Gonzalez jauna
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Nekane Balluerka andrea
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Bixente Atxa jauna
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose M. Gibert jauna
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Fernando Cossío jauna
IKERBASQUEko PRESIDENTEA

Manuel Salaverria jauna
INNOBASQUEko PRESIDENTEA

Jesús M. Ugalde jauna
JAKIUNDEko PRESIDENTEA

Emiliano Lopez Atxurra jauna
TECNALIAko PRESIDENTEA

Rikardo Bueno jauna
BRTAko ZUZENDARIA

Iñigo Ucin jauna
MONDRAGON KORPORAZIOAREN PRESIDENTEA

Francisco Riberas jauna
GESTAMPeKo PRESIDENTEA

Jorge Unda jauna
SENERko ZUZENDARI NAGUSIA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

0. Ongi etorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratuak agurtu ditu eta ongi etorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren 2019ko bigarren bilerara.

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundea ordezkatzeko duen Rikardo Bueno jaunari ongi etorria eman dio.

1. Aurreko akta irakurri eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak azken bilerako akta onetsi du. Bilera hori 2019ko ekainaren 25ean egin zen.

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

Lehendakariak sarrerako azalpen orokorra egin du bileraren edukiari buruz:

“Euskadi 2020 ZTBP - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren bukaerako fase betean gaudela, berriro ere bilerara deitu dugu Kontseilua, 2019an zehar egindako jarduketan laburpena eskaintzeko, planaren exekuzio-aldi osorako (2014-2020) zenbatetsitako inbertsioen eta emaitza operatiboen aurrerapenarekin batera. Gure Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemak jorratzeko dituen erronka nagusitzat jotzen ditugunak ere aurkeztuko ditugu.

Bilerako 6. puntuan, kontseilu honetan onartzeko aurkeztuko da hurrengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren —Euskadi 2030 ZTBP— oinarri estrategiko eta ekonomikoak zehazten dituen agiria. Plan berri horrek, geroago ikusiko denez, berrikuntzaren arloan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatu nahi du Euskadi, bizitza-maila eta enpleguaren kalitatea hobetzen laguntzeaz gainera”.

Jarraian bilerako gaien zerrenda aurkeztu du, eta adierazi du galderak eta eskaerak egin ahalko direla azken puntuaren ostean, amaierako ondorioak formulatu baino lehen.

Sarrera horren ondoren, lehendakariak Jesús Peñari eman dio hitza, 2020 ZTBParen exekuzioaren laburpena eta emaitzen aurrerapena azal ditzan.

3. 2020 ZTBParen exekuzioaren laburpena Emaitzen aurrerapena eta 2020ko aurrekontu-jokalekua.

Jesús Peña Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako ordezkariak gogora ekarri du bilerako lanak errazte aldera puntu honetako dokumentazio osoa bidali dela aldez aurretik, eta, beraz, haren alderdi nagusietara mugatuko dela aurkezpenean.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzak 2014-2018 bitartean I+G+B arloan egindako inbertsioaren bilakaera eta 2019rako eta 2020rako aurrekontuetako aurreikuspenak aurkeztu ditu. 2014-2020 bitarte osoan, hasiera batean aurreikusi baino 191 milioi euro gehiago inbertituko ditu Eusko Jaurlaritzak ZTBPan.

Aurreratu du ZTBParen aurrekontu-exekuzioaren jokalekuak berekin ekarriko duela guztira 9.700 milioi eurotik gorako inbertsioa egitea 2014tik 2020ra bitartean, eta hasierako zenbatespenaren % 87ko betetze-maila lortuko dela. Enpresek 5.300 milioi euro baino gehiago inbertituko dituzte; planaren

hasierako zenbatespenen % 80ra baino ez dira iritsiko. Aldiz, Eusko Jaurlaritzaren inbertsio-ahalegina nabarmentzen da: 2.928 milioi euro, planaren hasierako aurreikuspenen % 107.

Jarraian, labur azaldu du ZTBParen emaitza operatibo nagusien aurrerapena, 2014-2020 bitarteko ezarpen-aldi osorako zenbatetsia: 1) 9.700 milioi euroko inbertsioa I+G arloan (% 87ko exekuzioa); 2) Espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategia guztiz hedatzea; 3) 42.300 zientzia-argitalpen indexatuta nazioarteko erreferentziako aldizkarietan, horietatik % 55 baino gehiago lehenengo kuartilean; 4) Europako zein nazioarteko patenteen 3.000 eskaera; 5) 86.000 milioi euro goi-mailako eta goiko-erdiko mailako teknologiaren esportazioetan, zeinak 2014an guztizkoaren % 47 izatetik 2020an % 55 izatera igaroko baitira; 6) 72.000 milioi euro enpresen produktu berrien fakturazioan, zeina 2014an guztizkoaren % 15 izatetik 2020an % 19 izatera igaroko baita; 7) nazioarteko finantzaketan 830 milioi euro eskuratuta, horietatik 700 milioi baino gehiago H2020 programako proiektu europarren bitartez; 8) 5.000 doktore berri; 9) lanaldi osoaren baliokidetasuneko 13.300 ikertzaile, 2020an; eta 10) Enpresa berritzaileen % 44,5 baino gehiago 10 langiletik gorakoak izatea.

Euskadi 2020 ZTBParen zeharkako lorpen nagusi gisa, honako hauek aipatu ditu: 1) Epe luzerako RIS3 Euskadi estrategia zehaztea; 2) Zientzia, Teknologia eta Ikerketaren ekosisteman txertatzea ikerketa zientifikoa, teknologikoa, industria-arlokoa, osasun-arlokoa, nekazaritzako elikagaien arlokoa eta ingurumen-arlokoa; 3) Zazpi pilotaje-talde abian jartzea, Administrazioak, enpresek, unibertsitateek eta ikerketa-zentroek parte hartuta; 4) Abian jartzea Basque Research and Technology Alliance delakoa, zentro teknologikoak eta elkarlaneko ikerketa-zentroak koordinatzen dituen; 5) Berrikuntzari buruzko sentsibilizazio handiagoa. Berrikuntza agenda sozial eta politikoan sartu da; 6) Ikerketarako, prototipogintzarako eta saiakuntza bidezko balidaziorako lau zentro berri: Zibersegurtasun Euskal Zentroa, Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa, Fabrikazio Eoliko Aurreratuko Zentroa (Windbox) eta HarshLab Laborategia; 7) Euskadi Europako erreferentzia Basque Industry 4.0 estrategian; 8) Lankidetzeta estua Europako sare eta programekin: H2020, Vanguard, S3 Platform, EIT Food (European Institute of Innovation and Technology), EIT Manufacturing, European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing (EIP-AHA). 9) Hobeto trebatutako giza baliabideak: +Talentua, +Ikerbasque, +Emakumeak, +Doktoreak, +STEM; eta 10) I+G+Baren garrantziaz gehiago jabetzen diren ETEak.

Azkenik, Jesús Peñak Euskadi 2020 ZTBParen hobetu beharreko bi alderdi nagusiak deskribatu ditu, kontuan hartu direnak hurrengo planaren oinarriak taxutzean: 1) I+G arloan inbertitzen den BPGaren ehunekoa handitu behar da, eta 2) Euskadik gora egin behar du Europako berrikuntzaren R.I.S. (Regional Innovation Scoreboard) eta E.I.S. (European Innovation Scoreboard) ranking-etan.

4.- RIS3 pilotaje-taldeen aurrerapen nagusiak.

Arantxa Tapia: Fabrikazio Aurreratua, Energia eta Elikadura.

Hitza hartu du Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak, Energiaren, Fabrikazio Aurreratuaren eta Elikaduraren arloetako pilotaje-taldeen aurrerapenak aurkezteko.

Aldez aurretik labur azaldu du zer jarduera garatu diren RIS3 espezializazio-eremu guztiei euskarri ematen dieten zeharkako hiru ekimen eta programa hauetan: 1) Basque Research and Technology Alliance (BRTA); 2019aren hasieran formalki eratu ondoren, langileak hautatzen eta estrategia- eta ekintza-plana egiten dihardu; 2) Hazinnova programa berria, ETEei berrikuntza ez-teknologikorako laguntza ematen diena; lanean hasi eta lehenengo hiru hilabeteetan berrikuntzako 195 mikroproiektu

aktibatu ditu, 2020ko ekainerako ezarritako helburuaren % 39 betez; eta 3) Bind 4.0, Basque Industry 4.0 estrategiarekin zerikusia duten *start-up*en proiektuak bizkortzeko programa; 577 proposamen jaso ditu 2019ko edizioan, eta tiratzen duten 52 enpresak parte hartu dute.

A) Fabrikazio aurreratua.

Lehenengo eta behin, sailburuak balorazio orokorra egin du Basque Industry 4.0 estrategiak 2019an lortu dituen aurrerapenei buruz. Mugarri hauek ezarri dira: 1) Fabrikazio aurreratuko I+G+Ban bost nodo tematiko ari dira lanean Basque Digital Innovation Hub-ean: elkarlaneko robotika, fabrikazio aurreratua, makina adimendunak eta konektatuak, zibersegurtasuna eta material aurreratuak. EAEko enpresetan ezarritako 4.0 konponbideen egokitasuna frogatzen duten 11 kasu ditugu, ETEak bultzatu ahal izateko; 2) Enplegurako prestakuntzaren alorrean, eskariaren analisia hezkuntza-esparruekin eta funtsezko eragileekin batera erkatu da, eta prestakuntzako hiru programa pilotu diseinatzeari ekin zaio; 3) 4.0 negozio eredu berrietan, lehenetsuneko jarduketarako ezarri dira eta frogatze-kasuak identifikatzen ari dira; 4) Nazioarteko Posizionamendu eta Networking arloan, EAEk H2020 programan nola parte hartzen duen monitorizatzen ari da, eta digital innovation hub-etan elkarlanean jarduteko Europako proiektu pilotu bat abiarazi da; eta 5) Fabrikazio Aurreraturako Estrategiaren berrikuspena hasi da.

Jarraian azaldu du nola burutu den Basque Digital Innovation Hub-aren (BDIH) zerbitzuen eskaria eragiteko plan bat. BDIHren komunikazio-jarduerak antolatu dira, egiten dituen zerbitzuei buruzko informazioa emateko; halaber, 4.0 teknologien zabalkunderako jardunaldi teknologikoak egin dira, bai eta ETEei aholku eta laguntza emateko programa berri bat diseinatzeko bilerak ere. Digital Innovation Hub-en arloan eskualdeen arteko lankidetzak erabiltzeko ere erabiliko da programa hori.

Azkenik, European Institute of Innovation and Technology-ren EIT Manufacturing partzuergoa abiaraztean egindako jardueraren berri eman du sailburuak. Elkarrekin berritu Euskadik lantoki (colocation center) bat izango du Donostian.

B) Energia.

Sailburuak adierazi du burututa dagoela 2016an proposatutako lerro teknologikoen, zeharkako jarduketaren eta ekimen teknologikoen eta Energibasque strategiaren berrikuspena, eta 107 entitatek eta 268 pertsonak parte hartu dutela lan horretan. Berrikuspen horren atal batean, 2015-2017 bitartean I+G proiektuetan mobilizatu ziren baliabide guztien azterketa egin da. Guztira ia 229 milioi euro izan ziren, eta horietatik 128 milioi inbertsio pribatuari dagozkio.

Jarraian azaldu du Energibasque berrikusteko eta eguneratzeko prozesuan zortzi balio-kate identifikatu direla (olatuena energia, haizearena, eguzki-energia termoelektrikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa, oil&gas delakoa, sare elektrikoak, efizientzia energetikoa eta mugikortasun elektrikoa), bai eta garrantzizko bost teknologia erraztaile ere (biltegiratzea, potentzia-elektronika, materialak, ekonomia zirkularra eta digitalizazioa). Gainera, hainbat arlo estrategikotan eragina duten teknologia erraztaile batzuk nabarmendu ditu, arlo bakoitzeko berariazko teknologien osagarri direnak.

Atal honi amaiera emateko, sailburuak azaldu du zein egoeratan dauden martxan jarritako ekimen estrategikoak —horietatik bederatzi gaur egun garatzen ari dira— eta enpresek identifikatutako ekimen berriak, euren interes publikoa ebaluatu zain daudenak.

C) Elikadura.

Lehenengo eta behin, RIS3 Euskadi estrategiaren hedapen osoan zehar pilotaje-taldeak garatu dituen mugarri nagusien laburpena erakutsi du sailburuak.

Ondoren, nekazaritzako elikagaien sektoreko ETEei laguntzen dien Katilu izeneko *broker* ekimenaren aurrerapausoak deskribatu ditu. Ekimen horren barruan elkarlaneko berrikuntzarako 22 proiektu aktibatu dira. 200 pertsona baino gehiago joan dira antolatutako jardunaldi eta ikastaroetara.

Gero, Landa Garapenerako Planean jasotako lankidetzaz neurria deskribatu du. Bertan berrikuntza-proiektuen 42 eskaera jaso dira 2019. urtean. Horrez gain, berrikuntza-bonuen bidezko ekimen pilotu berri bat abiarazi da, Mugagabe izenokoa, eta funtzionatu duen lehenengo urtean 35 bonu ematea onetsi du; horretarako, bitarteko 43 eragile izan ditu lankide.

Segidan, vending osasungarriaren proiektuan elikaduraren eta osasunaren arloko taldeak egin dituen aurrerapenak deskribatu ditu. Proiektu pilotu bat eratu da bertan. Eta balio-katearen digitalizaziorako taldean —Smart Food Country— diagnostikoa eta gastronomia- eta elikadura-sektorearekiko erkaketa egin dira, Hazitek proiektu estrategiko bat onartzeaz gain.

EIT Food europar ekimenaren barruan, sailburuak azaldu duenez, *star-up*ak bizkortzeko proiektuen 319 eskaera jaso dira eta horietatik 60 hautatu dira. Hautatuetatik bederatziri Bilbon emango zaie sostengua, eta seguru asko hiru kokatu ahal izango dira Euskadin.

Sailburuak, bere hitzaldiari amaiera emateko, elikaduraren eta osasunaren arloko pilotaje-taldeen artean garatutako pilotaje-ariketan ateratako ondorioen berri eman du. Ondorio horietan elkarlanerako eta lankidetzarako balizko hiru arlo identifikatu dira.

Nekane Murga: Biozientziak-Osasuna.

Lehenik, 2019. urtean pilotaje-taldeak garatutako ekintza-planaren ildo nagusiak aurkeztu ditu sailburuak. Plan horrek I+G+B jarduerak, negozio ereduak, nazioartekotzea, prestakuntza eta hedapena biltzen ditu.

Jarraian, I+G+B arloan burututako ekintza nagusiak deskribatu ditu. Horietan 5 lan-ildo lehenetsi dira medikuntza birsortzailean eta terapia aurreratuetan, 8 onkologian, 3 gaixotasun kardiometabolikoetan, 6 gaixotasun arraroetan, 4 gailu medikoetan eta 5 neurozientzietan. Esparru horietako bakoitzean elkarlaneko ekimen eta proiektuen kasu zehatzak aurkeztu dira, enpresa, osasun-ikerketako zentro, teknologia-zentro, unibertsitate eta abarrekoak partaide izan dituztenak.

Ondoren Innosasan ekimenaren emaitzak aurkeztu ditu: 2019an EAEko 48 enpresari lagundu zaie euren produktuak eta teknologiak garatzen eta balidatzen EAEko osasun-sistema publikoarekin batera. Proiektu horietatik 30ek Medtech ekimenaren esparruan jaso dute laguntza. Ekimen hori Lehendakaritza Sailaren Berrikuntza Funtsekin bidez finantzatzen da.

Sailburuak Bind 4.0 ekimenaren emaitzak laburbildu ditu. Hirugarren edizioan, 2018an, ekimen horrek osasun-arloko 6 proiekturi lagundu zien, eta laugarren edizioan, 2019an, 22 start-up aurkeztu dira (ebaluazio fasean daude oraindik). Tiratzen duten 10 erakundek laguntzen dute edizio horretan.

Nazioarteko eremuan, sailburuak adierazi du Euskadik 2019an erreferentzia izan diren hainbat jardunaldi eta konferentzietan parte hartu duela, Yokohaman (BioJapan), Dusseldorf (Medica

azoka), Iruñean (Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako Bio-Osasun Industriaren 5. Bileran) eta Bordelen (VI European Conference in Silver Economy & Habitat). Gainera, Euskadik Interreg proiektuan parte hartu du, Refbio II kategorian.

Amaitzeko, hezkuntzaren arloan garatutako jardueren berri eman du sailburuak. Euroeskualdeko Campuseko Osasunaren Zientzia eta Teknologiaetako Poloan abian jarri da osasunerako aplikazioak dituzten polimeroei buruzko master bikoitz bat, eta Data Science-etako Erasmus Mundus master bat proposatu da Osasuneko eta Bioinformatikako ibilbide bat duena. Tknikako BIO nodoak nazioarteko bi proiektu berriri ekin die (Kompar eta EC Euvet), 3D fabrikazioko lankidetzak-akordioa sinatu du Biodonostia Osasun Ikerketako Zentroarekin, martxan jarri ditu azpiegitura eta laborategi berri batzuk Errenteriako egoitzan, eta LHko ikastetxeen sarean hiru ikasketa hauek ezarri ditu, espezializazio-programa banarekin: nekazaritzako elikagaiei aplikatutako ikerketa eta berrikuntza, osasuna-biozientziak, eta osasuna-zahartzea.

Iñaki Arriola: Ekosistemak eta Hiri-habitata.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak Ekosistemen eta Hiri-habitataren arloetako pilotaje-taldeen aurrerapenak aurkeztu ditu.

A) Ekosistemak.

Bere hitzaldiaren hasieran sailburuak gogora ekarri du 2019an apustuari eutsi zaiola bai bultzatutako I+G+B proiektuen kopuruari dagokionez (60 inguru dira), baita Sailaren finantzaketari dagokionez ere (2,2 milioitik gora). Proiektu eta finantzabide gehien xedea da Ekonomia Zirkularrari buruzko Europako politika berriei aurrea hartzea industrian. Gainera, lhobek koordinaturik, 8 milioi euroko finantzaketa lortu berri da Europar, URBAN KLIMA deritzon Life proiektu integratu baterako.

Azpi-marratzekoa nolako kalkuluak egin dituzten enpresek, 2017az geroztik babestu diren Ekonomia Zirkularreko proiektuen emaitzetan oinarrituta: urtean 60 milioi euro gehiagoko fakturazioa, 80 lanpostu berriren sorrera, unitateko kostuen % 10eko murrizketa, 20 milioi euroko inbertsioa, eta materialetan urtean 200.000 tonako aurrezpena. Kostua/eraginkortasuna ratioari dagokionez, 38 euro pribatu inbertitu dira jasotako euro publiko bakoitzeko; eta berotegi-efektuko gasen isurietan ia 90.000 tonako murrizketa dago.

Atal honen amaieran, sailburuak ekoberrikuntzako proiektuen mapa bat erakutsi du, lhobek eginga. Bertan ageri dira tokiko, Estatuko eta Europako 2.700 proiektu baino gehiago. Horien helburua da aztertzea ea I+G+Bko programa publikoetako laguntzak enpresen etorkizuneko ingurumen-erronka handietarantz bideratzen ari diren, eta jarduteko aukera zehatzak identifikatzea.

B) Hiri-habitata.

Hasteko, sailaren apustua gogorarazi du sailburuak: Hiri-habitatari buruzko pilotaje-taldea Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren I+G+Bko oinarria izan dadila. Halaber jakinarazi du lanak emaitzak ekarri dituela eta dagoeneko badugula Euskadiko hiri-agenda bat, Bultzatu 2050 izeneko.

Gero azaldu du nola egin den aurrera hainbat proiektutan Deusto Cities Lab Katedrarekin, Euskal Herriko Unibertsitateko Bizi Kalitatea Arkitekturan ikerketa-taldearekin, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko, Sevillako Pablo Olavide Unibertsitateko eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko hainbat ikerketa-talderekin, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko eta

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailekin eta Energiaren Euskal Erakundearekin batera. Guztiek auzoak berroneratzeko jarduketan berrikuntza dute ardatz, ikuspuntu ezberdinetatik.

Jarraian eraikuntza jasangarriaren ildo estrategikoan egindako aurrerapausoak azaldu ditu. Batez ere, ikerketaren eta berrikuntzaren helburua izan da ia batere energiari kontsumitzen ez duten eraikinak lortzea birgaitze-obren bitartez. Eta ildo horretan sortu da Zero Plana, Alokabidek kudeatzen dituen alokairu publikoko eraikuntzak (7.000 etxebizitzatik gora eta 230 eraikin) ia batere kontsumorik gabeko egoerara eramateko, helmuga bikoitza ezarriz 2030ean eta 2050ean.

Azkenik, sailburuak Zero Planaren barruan koordinatu diren 25 proiektuetatik 6ren laburpena erakutsi du, bai eta nZEB ekimen estrategikoaren laburpen-bideoa ere. Ekimen horren xedea eraikinen birgaitze adimenduna da, energia-kontsumoa ia zeroraino murrizteko irizpideei jarraitzen diena, eta Lehendakaritza Sailaren Berrikuntza Funtsaren bidez finantzatu izan da.

5. Cristina Uriarte: Ikerketa zientifikoa eta unibertsitate-ikerketa.

Lehenengo eta behin sailburuak 4Gune Klusterraren aurrerapenak deskribatu ditu. Ekimen horren bitartez lankidetzak sustatu nahi da sailen artean eta unibertsitate-sistemaren eta RIS3 eragileen artean. Honako aurrerapen hauek nabarmentzen dira: ikertzeko gaitasunen mapa egitea, Basque Industry 4.0ko prestakuntzarako programa exekutiboak garatzea, Enpresa + Unibertsitatea Erronken programa abiaraztea, STEAM Euskadi estrategia bultzatzea, STEAMSaren pilotua abiaraziz.

Ondoren, 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren jarraipenaren emaitzen berri eman du. Programako kontratuetako ekintza gehienak egokiro garatzen ari dira, baina bultzada handiagoa behar duten osagai batzuk identifikatu dira denetan: unibertsitateko prestakuntza dualerako tutoreak trebatzea, BERC zentroekiko lankidetzak, unibertsitate-enpresa estrategien finkapena, European Research Council-en (ERC) laguntzen erakarpena, patente-eskaerak eta titulazioen mapa. Ekintza gehigarrien artean honako hauek aipatu dira: Erronka programa, eta unibertsitateko ikasleen artean laneratzea eta ekintzailatza sustatzeko bekak.

Ondoren, Euskadiko talentuaren mapan, STEAM Euskadi estrategian eta estrategia espezializatu eta flagship-etan (IKUR) egindako jarduera nagusien nondik norakoak azaldu ditu sailburuak, eta azpimarratu du asko aurreratu dela prestazio handiko konputazioan (IkurHPC), neutronikoan (IkurNeutronics) eta kuantikoan (IkurQuantum).

Jarraian sailburuak gogora ekarri ditu Ikerbasquek Euskadiko zientziari buruz egindako azken txosteneko ondorioak. Hauek nabarmendu daitezke: 1) 6.241 zientzia-artikulu argitaratu dira 2018an (aurreko urtean baino % 3,5 gehiago); 2) 19.500 ikertzaile zeuden 2017an (biztanleria aktiboaren % 1,88); 3) EAEn gidatzen dira proiektu europarren % 37 (azken bost urteetan baino % 10 gehiago); 4) Euskadi Estatuko liderra da I+Gko inbertsioan (2018an % 1,95); 5) H2020 programan Euskadi liderra da per capita itzulketan (242 milioi euro 2014-2018 bitartean); 6) argitalpenen % 54 nazioarteko elkarlanekoak dira (% 20 gehitu dira azken hamarkadan); 7) zientzia-ekoizpenaren % 58 lehenengo kuartilean dago; 8) 700 doktorego-tesi defendatu ziren 2017an; 9) Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroek (BERC) eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroek (CIC) % 24ko partaidetza dute EAEko ekoizpen zientifikoan, eta 10) Ikerketa-arlo tematiko nagusiei eusten zaie, eta produktibitatea hazi egin da Giza eta Gizarte Zientzietan.

Bere hitzaldiari amaiera emateko, sailburuak politika publikoetan berdintasuna sustatzeko irizpide nagusiak aipatu ditu; besteak beste, STEAM Euskadi estrategia, edo Ikerbasquek erakartzen dituen ikertzaileak (helburua da % 40 emakumezkoak izatea), doktorego aurreko eta doktorego ondoko deialdi propioak eta bikaintasun-taldeak, edota Unibertsitate Sistemaren Plana (helburua da % 52 emakumezkoak izatea).

6.- Euskadi 2030 ZTBP planaren oinarri estrategiko eta ekonomikoak.

Jesús Peñak hurrengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza planaren funtsezko ildo estrategiko eta ekonomikoak dakartzan agiria aurkeztu du. Zientziaren, teknologiaren eta enpresaren arloetako 157 erakundetako 200 pertsonak parte hartu dute dokumentu hori prestatzen. Bileran hau egin aurretik dokumentua eta beraren aurkezpena Kontseiluko kide guztiei bidali zaizkie, jakitun egon daitezen.

Ondoren adierazi du Euskadi 2030 ZTBP planaren helburua dela Euskadi berrikuntzaren arloan aurreratuen dauden Europako eskualdeen multzoan kokatzea, bizitza-maila eta enpleguaren kalitate handiak lortzeaz gainera. Gainera, Euskadiko erronka sozial handietako batzuei aurre egiteko ekarpena egingo du: osasuna, klima-aldaketa eta energia, enplegua, eraldaketa digitala edo genero-berdintasuna. Hori guztia, NBERen 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuekin bat etorritik.

Azpimarratu du, jarraian, plana Europako ikerketako esparru-programa berriarekin (Europa Ikusmuga) lerrokaturik dagoela, eta hiru zutabe estrategiko dituela: P1) Bikaintasun zientifikoa, oinarri zientifikoa eta ezagutzaren sorkuntza hobetzeko; P2) Lidergoa teknologian eta industrian, I+Gan egindako inbertsioen eragin sozioekonomikoa eta emaitza teknologiko-enpresarialak lortzeko, eta P3) berrikuntza irekia, berrikuntza bultzatzeko, batez ere ETE-etan. Europan ez bezala, erdigune bat ere definitu da, Talentua, eta horren bitartez garatuko dira talentu zientifikoa, teknologikoa eta enpresariala, aurreko hiru elementuak guztiz garatu eta zutabe estrategikoen funtzioa bete dezaten beharrezkoa dena.

Jesús Peñak espezializazio adimendunerako RIS3 Euskadi 2030 estrategia berria deskribatu du esanez bilakaera fokalizatuagoa izango duela gaur egun indarrean dagoenak baino. Horren ondorioz berrikusi egin dira hiru lehentasun estrategikoen definizioa —1) Industria adimenduna; 2) Energia garbiagoak, eta 3) Osasun pertsonalizatua—, bai eta lau aukera-eremuen ere —4) Elikadura osasungarria; 5) Ekoberrikuntza; 6) Hiri jasangarriak, eta 7) Euskadi sortzailea. Euskadiko gizartean eta ekonomian eragiten ari diren hiru eraldaketa global handiak daude espezializaziorako estrategiaren bilakaera horren atzean: eraldaketa teknologiko-digitala, energia- eta ingurumen-eraldaketa, eta eraldaketa demografiko-soziala.

Jarraian azaldu duenez, espezializazio adimendunaren alor guztien arteko zeharkako lankidetzak sustatu nahi da plan berriaren bidez, eta, aldi berean, Europa Ikusmuga esparru-plan berrian definitzen diren misioekin bat egin nahi da. Horretarako sortu dira Zeharkako Ekimen Traktoreak, eta hiru esparru zehatzetan definitu dira hasiera batean: Zahartze Osasuntsua, Mugikortasun Elektrikoa eta Ekonomia Zirkularra. Zeharkako oinarri-teknologiak ere identifikatu dira, eta gerora pilotaje-taldeek aplikazio bertikal espezifiko gisa zehaztuko dituzte.

Bukatzeko, Jesús Peñak plan berriaren jokaleku ekonomikoak erakutsi ditu. Barnean hartzen dute Eusko Jaurlaritzaren konpromiso hau: urtero % 6 igotzea, gutxienez ere, I+G+B arloa babesteko partidei esleitutako aurrekontuak.

7. Oharrak eta galderak.

Ondoren, esandakoei buruzko galderak, oharrak eta gogoetak azaltzeko txanda ireki du lehendakariak, ondorio partekatuen laburpena egin aurretik.

Lehendakariak hitza eman dio Arantxa Tapiari, jakinaraz dezan zer kudeaketa egin diren talde sustatzaile bat eratze aldera, adimen artifizialeko Euskadiko zentroa abian jartzeko behin betiko proiektua taxutuko duena, Kontseiluaren 2019ko ekainaren 25eko bileran puntu honetan bertan planteatu zen moduan.

Sailburuak 2018ko apirilean abiatu zen proiektuaren aurrekariak eta joan zen ekainetik hasita enpresa eta zentro teknologikoekin batera garatu den prozesua azaldu ditu. Prozesu horren bidez hasierako talde sustatzailea eratu da, 12 enpresa eta eragile hauek osatua: Mondragon Kooperatiba Korporazioa, Iberdrola, Petronor, Sener, Etxetar, Gestamp, Onkologikoa, Versia, Tecnalia, Vicomtech, Ikerlan eta BCAM.

Esan du, halaber, proiektua martxan jarri arte proiektuaren kudeatzaile-sustatzaile lanak egingo dituen pertsona bat kontratatzeko kudeaketei ekin zaiela. Gogora ekarri ditu proiektuaren lau helburu nagusiak, joan den ekainaren 25eko Kontseiluan jada aurreratu zirenak, eta horien erreferentzia nagusia ardatz franko-alemaniarrek bultzatzen duen eredua izango dela erantsi du. Ereduek horrek helburutzat ezarri du enpresentzako aukerak sortzea eta ikerketa aplikatua garatzea adimen artifizialeko zeharkako teknologia berri horren gainean.

Tecnalia eta Petronor-eko lehendakariak, Lopez Atxurra jaunak, honako hauek azpimarratu ditu: Frantzia-Alemania ardatzari lotuta egin behar den apustu estrategikoa adimen artifizialaren esparruan; bateriak fabrikatzeko proiektuak Europan (baterien Airbus-a, mugikortasun elektrikoa sustatzeko); bikaintasun campusen eta eliteko unibertsitateen aldeko apustua, Europako hezkuntza- eta unibertsitate-sistemaren eraldaketara egokitzeko eta Brexitari esker sortuko diren aukera berriei ekiteko (I+Gko Europako programak finantzatzeko aukera gehiago izango dira). Ikuspegi hori aintzat hartuta, bere ustez Euskadik badu Frantzia-Alemania ardatz horretara batzeko aukera, Nouvelle Aquitaine-rekin daukagun lurralde, instituzio eta ekonomia erlazioaz baliatuz.

8. Laburpena eta ondorioak

Balorazioak egin ondoren, **lehendakariak** bileraren garapenaren laburpena egin du:

“ZTBP Euskadi 2020 amaitzen ari den honetan, lehen etaparen balantzea positiboa dela esan dezakegu. Plana amaitzen denerako, 9.700 milioi eurotik gorako inbertsioa egingo dugu I+Gn. Eta are garrantzitsuagoa dena, inbertsio horiek emaitza zehatzak emango dituzte. Adibidez: 42.300 argitalpen zientifiko (> % 55 lehen kuartilean); 3.000 patente-eskaera Europan eta nazioartean; 86.000 milioi euro goi-mailako eta erdi- eta goi-mailako teknologien esportazioan; 72.000 milioi euro enpresen produktu berrien fakturazioan eta 830 milioi euro jasota nazioarteko finantzaketaren ondorioz. Baina emaitza horiek lortu dira ikerketan lan egiten duten pertsonen dedikazioari eta talentuari esker; 2020. urtean 13.300 inguru izango dira, gainera. ZTBP 7 urtez egongo da abian (2014-2020), eta urteotan zehar 5.000 doktore berri egin dira.

ZTBP Euskadi 2020 planak aurrerapenak izan ditu, eta pozik gaude horiekin, baina berriz esan behar dugu ez direla nahikoa XXI. mendeko erronka berriei aurre egin nahi badiegu. Bi dira oraindik hobetu

behar ditugun eremu nagusiak: 1) I+G arloan egiten ditugun inbertsioak handitzea, batez ere enpresa-sektorean, Europako batezbestekoarekiko arrakala murrizteko; eta 2) EAEko ETE-etan berrikuntza bultzatzea, berrikuntzan aurreratuen dauden Europako herrialdeen artean kokatzeko, nazioartean dugun posizioa eta ospea hobetuz.

Balantzetik eta hausnarketa horretatik abiatuta, hurrengo ZTBP Euskadi 2030ren oinarri ekonomiko eta estrategikoen dokumentua aurkeztu dugu, eta 157 zientzia-, teknologia- eta enpresa-erakundetako 200 pertsonak lagundu dute hori egiten.

Plan horren xedea honakoa hau izango da 2030. urteari begira: berrikuntzako eskualde europar aurreratuenen artean kokatzea Euskadi, bizi-maila altuarekin eta enplegu-kalitate handiarekin. Helburu hori bat dator Horizonte Europa ikerketako eta berrikuntzako esparru-programa berriarekin, eta erronka sozial garrantzitsuak konpontzen lagunduko du, hala nola osasuna, klima-aldaketa eta energia, enplegua, eraldaketa digitala edo genero-berdintasuna, betiere NBERen 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuekin bat etorriz.

Oinarrien dokumentu honek ZTBP Euskadi 2020 berrirako jokaleku ekonomiko batzuk zehazten ditu, eta Eusko Jaurlaritzak I+G+B laguntzeko aurrekontuak urtero gutxienez % 6 handitzeko konpromisoa ere jasotzen du.

“ZTBP Euskadi 2030 planaren oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak” dokumentua onartu ondoren, datorren urtean, abian ipiniko da plana bera eratzeko prozesua. Prozesuan ekarpenak egingo dituzte bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako agente nagusiek, bai euskal herritarrek.

Oinarri horiek aintzat hartuta, lehendakariak honako ondorio hauek aurkeztu dizkio Kontseiluari, bileraren laburpen gisa:

Lehena: ZTBP Euskadi 2020ren balantzea positiboki baloratzea plana ezartzeko aldi osorako (2014-2020). Balantze horrek I+G arloan 9.700 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egitea ekarriko du, bai eta zenbait emaitza zehatz ere zientziaren, teknologiaren eta enpresaren arloetan.


Bigarrena: "ZTBP Euskadi 2030 planaren oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak" dokumentua onartzea. Dokumentu horren helburua da Euskadi berrikuntzaren arloan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea, bizitza-maila eta enpleguaren kalitate handiarekin.

Hirugarrena: Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ikerkuntzaren eta berrikuntzaren etorkizunarekin hartzen duen aurrekontu-konpromisoa azpimarratzea; izan ere, gutxienez % 6ko hazkundera dakar urtean I+G+B bultzatzeko aurrekontu-partidetan.

Laugarrena: “ZTBP Euskadi 2030 planaren oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak” dokumentu hori abiapuntutzat hartuta, 2020. urtean plan berria prestatzen hasteko prozesuari ekingo zaio. Prozesuan ekarpenak egingo dituzte bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako agente nagusiek, bai euskal herritarrek.

Bosgarrena: Enpresa, unibertsitate, ikerketa-zentro eta gainerako erakunde guztiei eta, oro har, euskal gizarteari dei egiten jarraitzea, berrikuntzaren aldeko apustua areagotu dezaten, hori baita Euskadiren etorkizunaren gakoa.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, lehendakariak bilera amaitutzat eman du 18:30ean.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized 'J' followed by 'P' and 'M'.

Jesús Peña-Martínez jauna

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA ETA LEHENDAKARIAREN ORDEZKARIA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANERAKO